



GIZARTEAREKIN KONPROMETITUTAKO UNIBERTSITATE BAT LORTZEKO BIDEAN

Ikuspegi hori Euskal Herriko
Unibertsitatean (UPV/EHU)
txertatzeko bide estrategikoak

Amaia del Río Martínez eta
Gema Celorio Díaz (koord.)



Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) babesa izan du, honako proiektu honen markoan *Hariak ehunduz. Unibertsitatean hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea pixkanaka gehitzeko estrategia, tresnak eta prestakuntza. Topaketa gizarteko eta hezkuntzako eragileekin* (2015). Testuen edukia Hegoaren erantzukizunpekoa da, eta ez dute nahitaez GLEAren iritzia islatzen.

Gizartearekin konprometitutako unibertsitate bat lortzeko bidean. Ikuspegi hori Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) txertatzeko bide estrategikoak.

Koordinatzaileak: Amaia del Río Martínez eta Gema Celorio Díaz

Itzulpena: Iñigo Gallastegi

2018ko martxoa

ISBN: 978-84-16257-30-0

Lege-gordailua: BI-648-2018

Diseinua eta maketazioa: Marra servicios publicitarios

Inprimaketa: Lankopi, S.A.L.



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopian, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu.

Lizentzia, osorik:

https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES

Finantzatzailea:



Argitaratzailea:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.eus

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Proposamenaren justifikazioa	7
Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzak Unibertsitatean duen zentzua	9
Epistemologia eta pedagogia kritikoak	9
Curriculum. Ezagutza esanguratsuaren gaia	11
Harreman pedagogikoa	13
Zeharkako ardatzak	13
Proposamen metodologikoa	16
Unibertsitate-Gizarte harremana	16
Goi mailako hezkuntza ondasun komun gisa. Bide estrategikoak	18
1. Bide estrategikoa	20
2. Bide estrategikoa	23
3. Bide estrategikoa	25
4. Bide estrategikoa	27
5. Bide estrategikoa	29
6. Bide estrategikoa	31
7. Bide estrategikoa	33
Bibliografia	35
1. eranskina. Partaideak	36



Aurkezpena

Honako dokumentu hau UPV/EHUko Hegoa – Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerako Buruzko Ikasketen Institutuak sustatutako proiektu honen markoan kokatzen da: *“Hariak ehunduz Unibertsitatearen hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea pixkanaka gehitzeko estrategia, tresnak eta prestakuntza. Topaketa gizarteko eta hezkuntzako eragileekin”*¹. Ekimen hori unibertsitatearen zuzendutako dago eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta beste zenbait hezkuntza eta gizarte eragileren arteko harremana sendotzea du helburu.


Hala, testu hori sortzeko bi eztabaida mintegi egin ziren Unibertsitatearen, horien bitartez proposamen kolektibo bat sortzeko asmoz. Proposamen kolektibo horren helburua pentsamendu kritikoarekin konprometitutako eta bidegabekeriei eta desberdintasunei aurre egiteko gai den Unibertsitate bat lortzen laguntzea da.

Beraz, bi egunez, hain zuzen ere, 2017ko irailaren 12an eta 28an, Zubiria Etxea eraikinean (Sarriko, Bilbo) elkartu ginen eta Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren ikuspegia² Unibertsitatearen txertatzeko ideiak eta ekarpenak bildu genituen.

Jardunaldi horietan 16 pertsonak (batez ere, unibertsitate irakasleek, baina baita Unibertsitateko zenbait arduradunek eta gizarte kolektiboetako zenbait kidek ere) osatutako diziplina anitzeko talde bat sortu genuen. Pertsona horien hausnarketak, bada, funtsezkoak

¹ Proiektu hori (PRO-2015K3/0030) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babesarekin du (2016-2017).

² Termino hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sortu zuen (H)abian 2030 estrategiaren markoan. <[www.elankidetz.euskadi.eus/contenidos/informacion/inf_habian/es_def/adjuntos/\(H\)ABIAN_%202030.doc](http://www.elankidetz.euskadi.eus/contenidos/informacion/inf_habian/es_def/adjuntos/(H)ABIAN_%202030.doc)>.



izan dira, bai ekimen hau martxan jartzeko eta bai subjektu eta lan ikuspegi desberdinak antolatzeko esperientzia gisa.

Hortaz, pertsona horiei guztiei beren lana, esfortzua eta konfiantza eskertu nahi diegu.

Ekimenean parte hartzen duen taldearen helburuak:

⇒ Unibertsitate komunitatean ilusioa, motibazioa eta aktibazioa sortzea. Unibertsitateak, gehienetan, gizartea eraldatzen laguntzen ez duten logikak eta dinamikak bultzatzen ditu; hortaz, talde honek izan daitekeen eraldaketa baten ilusioa sortu nahi du. Horretarako, instituzio horren kide diren pertsonen erresistentzia eta boteretzea aintzat hartu nahi du (ILL – Irakasleak eta Ikertzaileak, AZL – Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak eta ikasleak).

⇒ Lehenengo gogoeta horretatik abiatuta, gaur egungo eremuan arrakalak aurkitzea eta maniobratzeko eta aldaketa sortzeko espazioak identifikatzea. Izan ere, horiek gizarte justiziaren eta berdintasunaren printzipioekin bat datorren hezkuntza kritikoarekin konprometitzen garenon ardurak dira. Nagusi den kulturaren aurrean, gu kulturaren sortzaileak gara eta esanahi eta zentzu kontrahegemoniko berriak sortzeko gai gara.

⇒ Borondatea eta autokritikarako gaitasuna. Izan ere, unibertsitatea eraldatzeko, aurretik, gure burua eraldatu behar dugu. Autokritikak, beraz, aurrera egiteko eta bizitzaren iraunkortasuna sustatzeko ahalmena ematen digu.

⇒ Eremu endogamikoak saihestea. Horren aurrean, beste eragile batzuekin aliantzak sortzea, prozesu horretan elkarrekin aurrera egiteko. Beste subjektu horiekin lan egiteak irakatsi egiten digu eta politikoki mobilizatzerara animatzen gaitu.

Proposamenaren justifikazioa


Garapenerako Hezkuntzaren helburuek izan duten joera aldaketa ulertzeko, Garapenaren ideia bera zalantzan jartzen hasten den momentu hori testuinguruan jarri behar dugu. Horrela, gizartea eraldatzeko prozesuekin konprometitutako hezkuntza ikuspegi berri baten premia dagoela ere ulertzen dugu.

Bizi dugun sistema krisi hau azken mendeetan sustatutako garapen ereduaren ondorioa da. Izan ere, azken hamarkadetan politika neoliberalak garapen eredu hori bizkortu dute. Hori da, izan ere, gizarte kolektibo eta mugimendu kritikoei salatzen dutena. Era berean, akademiaren baitan ere, pobrezia eta bazterkeria aurre egiteko, hazkunde ekonomikoa lehenesten duten erreferentzia marko horiek zalantzan jartzen duten diskurtsoak sortzen ari dira.

Hala, gaur egun, hori da Unibertsitatearen egoera eta, hortaz, eztabaida sortu da Goi Hezkuntzaren zentzuaren inguruan. Hain zuzen ere, munduak eta gizadiak aurrean dituen arazo larriei erantzuna emateari dagokionez, zalantzan jartzen da honako hauen funtzionaltasuna: instituzio horren egitura eta antolakuntza, instituzioak sortzen dituen ezagutzak eta bere helburuak. Izan ere, unibertsitateak, gero eta gehiago, joera merkantilizatzaileen menpe dago.

Koldo Uncetaren arabera (2014:29), ezagutzaren merkantilizazio baldintza berriek inpaktu handia izan dute unibertsitatearen rolaren inguruko gogoetan. Era berean, baldintza horiek azken urteetan unibertsitate sisteman egindako erreformak baldintzatu dituzte. Europako Batasunean egindako erreformetako bat Europako Goi mailako Hezkuntza Esparrua (EEES), hau da, Bolonia Plana sortzea izan da. Uncetaren ustez, Unibertsitateko politika eta erreforma berriak gaur egun nagusi diren politika ekonomikoko ildo berriei estu lotuta daude. Hala, honako hauek dira Unibertsitatea merkatura zuzentzeko joera berri horrek sortzen dituen zenbait ondorio (Unceta, 2014:30):

Unibertsitatea enpresa bihurtzean eta ezagutza merkantzia bihurtzean, ikerketaren finantzamendua eta lortutako emaitzen balio komertziala lotzen



dituzte. Horrek ondorio latzak ditu gai desberdinen inguruan ikertzeko askatasun teorikoan.

⇒ Kalitatean oinarritutako kudeaketa eta neurketa ereduak enpresaren esparrutik datoz eta ez dute aintzat hartzen Unibertsitateak gizartean duen ekarpena.

⇒ Unibertsitate rankingak kalitatea neurtzeko irizpidetzat hartzen dira baina horiek kanpotik ezarritako parametroak erabiltzen dituzte eta ez dituzte unibertsitate komunitatearen benetako kezak kontuan hartzen. Izan ere, parametro horiek unibertsitateak ezagutzaren “merkatuan” duen posizioa erakusten dute eta, horrenbestez, irakasleen lana baldintzatzen dute.


⇒ Konpetentzietan oinarritutako curriculumak onartzen dute, Unibertsitateak gaur egun eman behar duen hezkuntzaren adierazpen nagusi gisa.

Beste alde batetik, Garapenerako Hezkuntza, Giza Garapenaren eta Herritartasun Globalaren paradigman oinarrituz, ekarpen berriak egiten saiatu zen. Ekarpen horiek, haatik, ez ziren egokiak izan munduko desberdintasun sozialak ulertzeko, ezta Modernitatearen proiektuarekin ados ez zeuden gizarte eragile kritikoak batzeko ere.

Gaur egun, garapenerako lankidetzari lotutako Garapenerako Hezkuntzaren proposamen hori gaingitu eta beste proposamen globalago baterantz ibili gara. Horrek honako hau proposatzen du: Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren ikuspegia unibertsitate jardueran integratzea. Jarraian, estrategia horren printzipio nagusiak laburbilduko ditugu.



Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzak Unibertsitatean duen zentzua³



Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza hainbat esparrutik (pedagogia kritikoaren tradizioetik eta herri hezkuntzan ikuspegi horrek duen garrantzitik) eta hainbat subjektuk sortzen duten proposamen erradikal bat da. Alabaina, gaur egun, proposamen hori inoiz baino beharrezkoagoa da; izan ere, garapen eredu kapitalista eta heteropatriarkala jasanezina dela eta krisian dagoela argi ikusten dugu. Hori dela eta, kapitalaren logiken aurrean bizitzaren iraunkortasuna lehenesten duten alternatibak martxan jartzea premiazkoa da.

Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren kontzeptuak honako helburu hauek ditu: tokiko ikuspegi itxiak gainditzea; Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegiak erabiltzen duen sentsibilizazio estrategiaz harago joatea; eta instituzioen, Akademiaren eta garapenaren esparruak gainditzea.


Azken finean, proposamen hori askapenerako proposamen bat da, mundua eraldatu nahi duena. Horretarako, aurrerago ikusiko dugun bezala, mundua bere konplexutasunean ulertu nahi du, iturri eta erreferentzia desberdinak erabiliz.

Epistemologia eta pedagogia kritikoak

Jakintza, botere eta kontrabotereen, hegemonia eta emantzipazioaren arteko tentsioen emaitza da, testuinguru eta momentu historiko bakoitzean.

Hala, botere handiena duten gizarte taldeek ezagutza sortzeko eta hori hedatzeko ahalmen handiagoa dutela onartzen badugu, guk menpeko eta baztertutako sektoreekin konprometitutako ezagutza sustatu behar dugu. Horretarako, androzentrikoak eta eurozentrikoak ez diren ikuspegiak eta curriculumetik baztertutako ezagutzak berreskuratu behar ditugu.

³ Atal honetan egileak Celoriok (2017) azaldutako zenbait ideia erabili ditu.



Helburu horretarako epistemologia kritikoa dugu erreferentzia gisa. Izan ere, hori errealitatea eraldatzeko eta mundu hobe bat eraikitzeke lan egiten du.

Beste alde batetik, pedagogia hezkuntza prozesu osoan erailtzen diren hezkuntza praktika eta estrategiei dagokie. Hala, Hezkuntza horren asmo askatzailea eta eraldaketaren aldeko jarrera kontuan hartuz, pedagogiak ikuspegi kritikoa eta izaera politikoa izan behar ditu. Hortik sortzen den hezkuntza proposamen horrek, hortaz, menperatze sistema zalantzan jartzen, eta desafiatzen du eta berdintasunezko harremanen marko bat proiektatzen du. Berdintasunezko harreman horiek, bada, pertsonen eskubide berdintasunean eta aniztasuna balioestean oinarritzen dira.

Luis Rigalen arabera (2011), honako hauek pedagogia kritikoa funtsezko elementuak dira:


- ⇒ Elkarrizketa arrazoimen komunikatibo (eta ez indibidual) modu bat aintzat hartzean oinarritzen den negoziatio kulturala da. Elkarrizketak jakintzak modu kolektiboan sortzea dakar, errealitate sozial konkretu batean oinarrituz. Negoziazioak konfrontazioa ere badakar, baina hori zentzu kritikoa prozesatzen da, dauzkagun ezagutzak gaitzetzeko helburuz.
- ⇒ Subjektibitate matxinoa subjektuaren autonomiaren etika baten eta erresistentziaren pedagogia baten arteko artikulazioan oinarritzen da. Honako hauek dira subjektibitate matxinoen oinarritzko osagaiak: jakin-min epistemikoa, errealitatearen aurrean jarrera kritikoa eta proiektu utopikoa (ez bakarrik intelektuala).
- ⇒ Pentsamendu kritikoa sortzeko helburua duten eguneroko eremuetan, hala nola, eskoletan, gizarte mugimenduetan edo erakunde politikoetan, balore eta praktika demokratikoak integratzen ditu.
- ⇒ Desberdintasunak aintzat hartzen ditu aniztasunaren pedagogia bat garatzeko. Aniztasuna lantzeko kultura aniztasunak eta zentzu eta balio aniztasuna errespetatu behar ditugu baina, horrez gain, menperatzaileen eta menperatuen arteko heterogeneotasun estrukturalak ere kontuan hartu behar ditugu, gizarte bazterkeriaren arazoari benetan aurre egiteko.




Curriculuma. Ezagutza esanguratsuaren gaia

Proposatzen ari garen curriculum hori ikasleak gaitzen dituzten ezagutza horietan ardaztu behar da. Horren bitartez, ikasleek gaur egungo errealitatea ulertzeko eta hobetzeko gai izan beharko dute, ikuspegi etiko eta emantzipatzaile batetik. Hala, curriculuma ez dagokie eduki kognitiboari bakarrik; aitzitik, hezkuntza komunitatean garatzen diren praktika multzoari dagokio.


Zentzu horretan ikasleen sozializazio kritikoak curriculum autonomo eta esanguratsu batean hartu behar du oinarri:

 Curriculum autonomoa. Curriculuma testuinguruaren eta ikasleen beharren arabera moldatu behar dugu. Horren helburua honako hau da: curriculuma ikasleen gaur egungo eta etorkizuneko garapenerako zentzuduna eta funtzionala izatea. Hain zuzen ere, ikasketa horiei esker ikasleak mundua hobetzeko gai izan daitezen lortu nahi dugu.

 Curriculum esanguratsua. Izan ere, edukiak egokiak izan behar dira eta azaltzeko ahalmen handia izan behar dute. Horrela, kontzientzia sozial kritikoa sortu behar dute. Hortaz, edukiak gizartean garrantzia duten arazoengatik inguruan antolatzea proposatzen dugu. Izan ere, arazo horiek ikasleen esperientziarekin lotuz, horrek hausnarketarako eta ekintzarako elementuak emango die.

Honako elementu hauek osatzen dute curriculum hori: konplexutasuna; ekodependentzia, interdependentzia; pentsamendu kritikoa; "zentrismoak" (eurozentrismoa, androzentrismoa, antropozentrismoa) zalantzan jartzea; errealitatearen irakurketa etikoa; mobilizatzen, kolektiboki aritzen eta gizartea aldatzen ikastea.

Beraz, helburua, ikasleei lanketa konplexuak egiten laguntzen dien curriculuma garatzea da; herritar kritikoak eta konprometituek sortzeko ezinbestekoak baitira lanketa horiek. Irakaskuntza-ikasketa modu hori, bada, honako printzipio hauetan oinarritu behar da:



⇒ Eremu etikoak eta politikoak unibertsitate ikasketa planak inspiratzen dituen filosofiaren funtsezko elementu izan behar dute. Hala, hezkuntza bi eremu hauen ikasketarekin lotu behar dugu: etikoa; gizarte justizia, ekitate eta jasangarritasun printzipioen arabera komunitatean parte hartzeko gai diren subjektu kontziente eta kokatuak heziz, eta politikoa; hau da, komunitate horretan parte hartzeko behar diren jakintzak eta ekintza kontziente eta emantzipatzailea sortzen duen praxi askatzailea.

⇒ Emozioen eremua ikasketa esanguratsuaren funtsezko dimentsio bat da. Ikasketa hori gazteen bizitzaren testuinguru garrantzitsuekin lotzen da eta, hala, oso erabilgarria da gizartea aldatzeko. Beraz, gazte horien interesekin, esperientziekin eta ardurekin bat egitea funtsezkoa da. Zentzu horretan, ikasketak honako hauek sustatuko ditu: sentimenduak aske adieraztea, gazteak subjektu protagonista gisa garatzea, desberdintasunak aintzat hartzea, hobetzeko estrategiak diseinatzeko gaitasuna, etab.

⇒ Ikasketak tokiko-global ikuspegia barneratu behar du, bi helburu hauekin: globalizazio neoliberalak eta sistemaren krisiak ageriak utzi duten bezala, antzeko arazoak dituen komunitate zabalago baten kideak garela ulertzea; eta konplexua eta multidimentsionala den errealitate hau ulertzen laguntzea.

⇒ Beste hainbat gizarte eragile artikulatzea. Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren ikasketak eremu formalez harago joan behar du. Hala, inguruko gizarte eragileekiko loturak ikasketa aberastu behar du. Gizarte mugimenduekiko harremanak eta elkarrekin egindako lanak gizarte ekintza emantzipatzaileerako interesgarriak diren ezagutza eta ikasketak sor ditzake.



Harreman pedagogikoa

Hezkuntzaren Teoria Kritikoen ikuspegi sozial eta politikoaren arabera, hezkuntza harremanean parte hartzen duten subjektuek ikuspegi hori izan behar dute. Zentzu horretan, interes emantzipatzailea duen proposamen pedagogikoa da ikuspegi horrekin bat datorrena. Interes emantzipatzailea Habermasek ezagutza sortzen duten interesak lantzerakoan ezarri zuen kategoria bat da.


Alde batetik, interes teknikoaren ezaugarri den ezagutza, neutralizat, unibertsalizat eta ahistorikotzat jotzen da. Horretan hierarkia irakasle eta ikasleen arteko harremanaren printzipioa da. Bestetik, interes emantzipatzaileak, ikasleen zentzu kritikoa garatuz, gizarte justiziaren eta ekitatearen alde lan egiten duen hezkuntza praktika bat sustatzen du. Planteamendu horren arabera, irakasleek eta ikasleek elkar aintzatesten dute, euren arteko harremana demokrazia eta horizontaltasun irizpideen arabera ezartzen dute eta elkarrekin hausnartzen eta lan egiten dute mundua eraldatzeko.

Bestalde, irakasleak hezkuntzaren botere eraldatzailea ezagutzen du eta curriculumara arazo garrantzitsuen inguruan antolatzen eta testuingurura moldatzen duen intelektual kritikotzat hartzen du bere burua. Ikasleak, bere aldetik, bere komunitateko bizitza politiko eta sozialean parte hartzeko eta gizarte justiarekin konprometitzeko gaitasunak garatzen ditu. Dena den, nabarmentzen dugun gizarte justizia hori ez da unibertsala; aitzitik, bere esanahia sexu, genero, etnia, erlijio, adin eta maila sozio-ekonomikoko desberdintasunen menpe dago. Era berean, ez ditu gizarte guztietan dauden desberdintasunak ezkututzen.

Zeharkako ardatzak

Gizartea aldatzeko konpromisoa duen herritartasun kritiko eta aktibo bat sortzeko garrantzitsuak diren ezagutzak zehazte aldera, zeharkako ardatz hauek ditugu:

Generoa. Gizon eta emakumeek nagusi den kultura patriarkalean sozializatu gara. Horretan, jokabide eta jarrera sexistak, matxistak, homofoboak, eta abar gure ikasketaren eta gure



harreman sozialen parte dira eremu guztietan. Errealitate hori eraldatuko badugu eta gizakia zaintzea bizitzaren eta beste mundu posible baten oinarri izatea nahi badugu, edozein hezkuntza esku-hartzek errealitate horretatik abiatu behar du.


Generoko ikuspegi feminista ezinbestekoa da; izan ere, gizonezkoen eremua unibertsal bihurtzen duten diskurtsoak zalantzan jartzen ditu. Feminismoak, bada, deseraikitze prozesuak erabiltzen ditu. Horretarako geure kultura eta pentsamendu androzentriko eta eurozentrikoa era kritikoa aztertzen du. Era berean, gizonak eta emakumeak banaka zein kolektiboki eraldatzeko aukerak aintzat hartzen ditu.

Hezkuntza ekintzan generoko ikuspegiak curriculuma eta edozein hezkuntza proiektuan ematen diren harremanak aldatzeko eragina duten estrategiak proposatzen ditu.

Ekologia eta jasangarritasuna. Azken hamarkadetan, hainbat ikerketak planetak pairatzen duen krisi ekologikoa landu dute. Horretan, klima aldaketa kapitalismoaren oinarrian dauden produktibismoaren eta hazkunde amaigabearen ondorio latzena da. Kapitalismoaren produkzio sistemak praktika estraktibistak erabiltzen ditu eta baliabide naturalak sistematikoki eta neurri gabe esplotatzen ditu. Beraz, ez du gure planetako bizitzaren garapen iraunkorra bermatzen.

Mugimendu ekologistak, bada, aspalditik salatu du eredu suntsitzaile hori eta, horren aurrean, alternatiba desberdinak jarri ditu martxan. Alternatiba horiek helburu bat dute komunean, sistema errotik aldatzea, alegia. Hala, hezkuntza emantzipatzaileak munduko errealitatearen irakurketa kritiko bat egin eta kapitalaren aurrean bititza lehenesten duen gizartea sortuko badu, jasangarritasuna hezkuntza horren funtsezko ikuspegi bat izan behar da.

Izan ere, jasangarritasunaren proposamenak ikuspegi zabalago bat eskaintzen du. Horren arabera, ingurumen ikuspegi az gain, beharrezkoa da nagusi diren ekoizpen eta kontsumo ereduak gure bizitzan duten ondorioen inguruan kontzientzia kritikoa sortzea. Zentzu horretan, proposamenak honako hau eskatzen du: bizitzak aurrera jarraitzea -zentzu gizatiar, sozial eta ekologikoan- eta, are gehiago, zaintza eta maitasunari dagokienez, komunitateetan bizi baldintza egokiak garatzea.



Eskubideak. Globalizazio neoliberalaren politikek eta praktikek merkatuaren interesak hobesten dituzte, herri eta pertsonen eskubideen aurretik. Hortaz, honako ondorio hauek izan dituzte: pobrezia larriagotzea, gizarte desberdintasunak handitzea, pertsona gehienek bizi baldintza duinak ez izatea eta giza eskubideak sistematikoki urratzea.

Giza eskubideak babestea eta sustatzea, beraz, ikuspegi pedagogiko honen zeharkako ardatz bilakatzen da. Izan ere, lantzen ari garen ikuspegi honek honako helburu hauek ditu: bidegabekeriak era urraketak salatzen ikastea eta borrokan eta gizarte mobilizazioan parte hartze aktiboa sustatzea. Horien bitartez, indarkeriarik gabeko mundu bat eraikitzeko konpromisoa hartzen du.

Kulturartekotasuna. Aurrean dugun sistema sakonki errotzen da gure imajinarioan eta, hortaz, guk harremanak izateko, errealitatea aztertzeko eta alternatibak proposatzeko dugun modua baldintzatzen du. Kulturartekotasuna gure proposamen honen oinarritzko elementu bat da. Horren bitartez, bada, globalizazio hegemonikoak sortzen dituen kulturaren homogeneizazio prozesuei aurre egin nahi diegu. Zentzu horretan, bat gatoz Isabel Rauberek eta beste zenbait idazlek erabiltzen duten kulturartekotasun kritikoaren kontzeptuarekin. Horrek, desberdinen artean berdintasunezko harremanak ez egotea eskatzen du. Horrela, historikoki hegemonikoa den horren nagusitasuna saihestu edo mugatu nahi du. Beste modu batera, parte hartzen duten eragileen borondatea gorabehera, hegemonikoa den hori errepikatuko eta birlegitimatuko litzateke, hizkuntza berri batez mozorrotuta edo ezkutatuta (2014:31).

Ikuspegi horretan oinarrituta, hezkuntza ekintzak kritikoki erantzun behar die diskurtso xenofoboiei, gure kulturen oinarrian dagoen etnozentrismoa argitara emanaz. Era berean, boteretzeko estrategiak eskaini behar ditu; elkarrizketaren bitartez eta kultura, genero, etnia eta maila aniztasuna kontuan hartuz, egoera ahulean dauden kolektiboetako kideen autonomia sendotzeko.



Proposamen metodologikoa

Honako hauek dira Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzarekin bat datorren proposamen metodologikoaren ezaugarri nagusiak:

- ⇒ Metodologia aktiboak. Ikasleek jarduera eta lan desberdinak egin beharko dituzte ezagutza, jarrera, balore, trebetasun eta gaitasun berriak garatzeko.
- ⇒ Parte hartzeko metodologiak. Ikasleek irakaskuntza-ikasketa prozesuaren partaide izan behar dute, ardurak beren gain hartuz eta beren lan sistemen inguruan ere erabakiak hartuz.
- ⇒ Metodologia kolaboratiboak. Banakako lanak taldeari ekarpena egiten dion heinean hartzen du zentzua. Hala, edukiez harago, ikasketa garrantzitsuak sortzen ditu erabakiak hartzeko prozesuen eta elkar laguntzeko, lankidetzako, ezagutzak trukatzeko eta gaitasunak garatzeko sistemen inguruan.
- ⇒ Kolektiboaren eta komunitatearen balioa indartzen duten metodologiak. Proposatutako lanak aurrera eramateko, taldeak funtzionatu behar du. Hori lortzeko, taldeak kide bakoitzaren ekarpenak aintzat hartu behar ditu, interes komunak identifikatu behar dira eta konpromiso kolektibo bat egon behar da.
- ⇒ Metodologia boteretzailerak. Ikasleen, irakasleen eta beste hezkuntza eragileen arteko elkarrizketa ezinbestekoa da metodologia hauetan.

Unibertsitate-Gizarte harremana

Harreman hori indartzean Unibertsitateak honako ezaugarri hauek ditu: errealitatean kokatzen da, komunitatearekin konprometitzen da eta irakaskuntza eta ikerketaren bitartez -horiek unibertsitatearen funtzio nagusiak baitira- gizartea aldatzeko ezagutza bat sortzen laguntzen su. Ezaugarri horietatik abiatuta, posible egiten dira hauek:

⇒ Unibertsitate publikoaren idealak berreskuratzea: autonomia, burujabetza, eta konpromiso soziala.

⇒ Hezkuntza inklusibo eta ekitatibo bat sustatzea, gizartea aldatzeko konpromisoa duen herritartasun aktibo eta demokratikoa sortzeko.

⇒ Gaur egun, testuinguru partikularretan eta toki eta momentu espezifikoetan sortzen diren erronkei aurre egiten dien praktika pedagogiko kokatua sustatzea.

⇒ Akademiatik kanpo sortzen diren jakintza eta ezagutzekin elkarriketa sortzea, gizartean eragiteko gaitasun handiagoa duten proposamen integratzaileak garatzeko.

⇒ Komunitateari irekia den Unibertsitatea sendotzea. Unibertsitate hori eredu askatzaile eta eraldatzaile batean araberakoa izan behar da eta gizarte mugimendu eta eragileekin teorizazio eta hausnarketa prozesuak bultzatu behar ditu.

⇒ Subjektu kritiko eraldatzaileak sortzen lagunduko duen epe luzerako estrategia gisa, konpetentzia sozial eta herritarra sustatzea.

⇒ Ikasleengan euren heziketa eta aukera profesionalak orientatuko duen ikuspegi etiko bat garatzea.

⇒ Unibertsitateko eragileen eta eragile sozialen arteko elkarriketarako eta topaketarako espazioak sustatzea. Horietan eragileek elkar aintzatesten dute eta, gizartea aldatzeko ezagutza adituak partekatuz, elkarrekin lan egiten dute.

⇒ Irakasleen rol hezigarria aintzat hartzea. Hala, irakasleak ez dira ezagutza tekniko baten transmititzaile hutsak; aitzitik, berdintasunarekin eta gizarte justiziarekin konprometitutako profesional kritikoak dira.





Goi mailako Hezkuntza ondasun komun gisa. Bide estrategikoak

Gero eta pertsona gehiagoren arabera, Goi mailako Hezkuntza ondasun komun gisa ulertu behar dugu. UNESCOren arabera (2015), ikuspegi horrek berezko dimentsio kolektibo bat du eta hezkuntzaren ikuspegi sozial, kultural eta etikoak kontuan hartzen ditu. Ondasun komunak, beraz, guztien onari laguntzen dioten horiek dira. Horiei esker, gizarte osoa indartzen da eta hobeto funtzionatzen du eta norbanakoak hobeto bizi dira. Kontzeptu horrek hezkuntzaren helburua birpentsatzeko printzipio bat eskaintzen du. Era berean, bizitzaren iraunkortasunarekin bat datorren ezagutza bat sustatzeko premia erakusten du. Ezagutza horrek, bada, bizi dugun krisi ekologiko eta sozialari aurre egiten lagundu beharko digu.

Bizitzaren iraunkortasunak ekoizteko eta kontsumitzeko modua errotik aldatzea eskatzen du, baita harremanak izateko, parte hartzeko, pentsamendua sortzeko eta ezagutzeko moduak ere. Izan ere, ezagutzeko moduetan, Unibertsitateak funtsezko rola izan dezake.

Hortaz, nahi dugun Unibertsitateak gizartearen arazoei erantzungo dien ezagutza sustatu behar du. Erronka hori gainditzeko, bada, bizitzaren iraunkortasunaren aldeko sozializazio kritikoa sustatzen duen hezkuntza ikuspegia integratu behar dugu.

Ikuspegi horretatik abiatuz, Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza esku hartzeko proposamen gisa berreskuratu nahi dugu. Horrek, oinarri feministak erabiliz, bizitzaren iraunkortasunaren aldeko Unibertsitatea sustatuko du.

Bizitzaren iraunkortasunaren aldeko Unibertsitateari dagokionez, honako ideia hauek aurkezten ditugu:


- Unibertsitateak eremu publikoaren ikuspegi erradikal baten arabera antolatzen du bere jarduera. Hala, harreman estua du gizartearekin, komunitatearekin, gehiengoaren interesekin eta sektore behartsuenekin. Espazioak zehazteko eta kudeatzeko Unibertsitateak generoko ikuspegia eta inklusio ikuspegia erabili behar ditu.

Unibertsitate bizigarria, atsegina eta jasagarria. Unibertsitateak ezin du, gozamina eta asia kontuan hartu barik, bakarrik ikasketarako eta lanerako espazio bat izan. Espazioak zehazteko eta kudeatzeko, generoko ikuspegia eta ikuspegi inklusibo bat erabili behar ditu.

Besteak eta bere burua zaintzen duen Unibertsitatea. Zaintza horiek pertsonen ongizatea -zentsu fisiko zein emozionalean- lortzen laguntzen dute. Era berean, zaintzak honako hauei ere dagozkie: ingurumena; Unibertsitateko jarduerarako beharrezkoak diren ezaugarriak eta lan ereduak; elikadura, kontsumo, parte hartze eta harreman ereduak; etab.

Hezkuntza komunitateko kideak aintzat hartzen dituen Unibertsitatea. Izan ere, horiei kasu egiten die eta euren ekarpenak eta jakintzak aintzat hartzen ditu.

Mugitzen den Unibertsitate dinamikoa, komunitateari eta beste hezkuntza eta gizarte eragileen prozesu sozialei irekia.





Bide estrategikoa



1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

Mundua ulertzeko eta eraldatzeko behar den ezagutzari dagokionez, ikasleen gaitasunak indartu subjektu kritiko eraldatzaile gisa.

Zertan datza?

Ikasleak birkokatzea, mundu bidezkoago eta ekitatiboago bat eraikitzeko behar den ezagutza sortzen duten subjektu politiko gisa. Eredu teknokratikoan, unibertsitate hezkuntzaren helburu nagusia ezagutza teknikoetan eta teknologia berrietan adituak dituen profesionalak heztea da. Horren aurrean, konpetentzia etikoak eta beste gaitasun hauek garatu nahi ditugu ikasleengan: errealitatea aztertzeko, munduan kokatzeko eta sistema kapitalista eta heteropatriarkalari aurre egiteko esperientzia alternatiboak saiatzeko gaitasunak.

Ikasleen kolektiboak honako ezaugarri hauek izango ditu: gizartea eraldatzeko konpromiso estrategikoa; berezko ezagutza sortzeko eta mobilizatzeko ahalmena; eta efektu biderkatzailea izan dezaketen aldaketarako ekimenak hedatzeko eta zabaltzeko rola. Horrek proposamen honen interes talde nagusi bat bihurtzen du kolektibo hori.

Hala, talde horrek bere burua boteretzeko, politikoki aktibo bihurtzeko eta gizartearekin konprometitzeko, baliabideak eta estrategiak eskaini behar ditugu. Baliabide eta estrategia horiek, bada, alternatibak balio etikoen arabera bilatzen lagunduko diete.



Nortzuk dira arduradunak?

Zentroetako arduradunak
Hezkuntza komunitate osoa: irakasleak, Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (AZL), ikasleak
Ikasle kontseilua
Ikasleen erakundeak
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordetza
Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordetza
Berdintasun batzordea
Garapenerako Lankidetzakontseilua

Zer beste eragilerekin?

Beste hezkuntza eragile batzuk
Gizarte kolektiboak

Nola sustatu?

1.1. Proposamen pedagogiko bat garatu, edozein graduako ikasleek Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren inguruko eztabaidei hurbiltzeko aukera izan dezaten. Proposamenak honako elementu hauek izango ditu:

- ikasleak ikasketa prozesuen protagonistak izango dira (horrek ardurakidetzak dakar),
- Ikasleen beharrei lotutako ikasketa (ikasketa esanguratsua); parte hartzen duten ikasle taldearentzat garrantzitsua den ezagutza, beren interes emantzipatzaileei lotua,
- gelan landuko eta ikasiko denaren zentzuaren inguruan hausnarketa bat egitea (eztabaida epistemologikoa mahaigaineratzea),
- ikasketa prozesu bera aztertzea, horretaz jabetzea eta aintzat hartzea (erabakiak hartzeko modua, botere harremanak, zaintzak, pertsonen eta tartean sartutako kolektiboen arteko harremanak...),
- bizitzaren iraunkortasunari dagokionez, ikasleen jakintzak aintzat hartzea (arlotu kognitiboa, emozionala...),



Nola sustatu?

- Unibertsitateko ezagutzaren egokitasuna, horrek gizartearentzat/komunitatearentzat duen interesa, Unibertsitatea gizartearekin lotzen duten proiektu problematizatzaileen bitartez lan egitea,
- ezagutzaren eta ikasleen aukera profesionalen arteko lotura, gizarte justiziaren etikaren ikuspegitik,
- ezagutzaren diziplinartekotasuna,
- eremu komun, kolektibo, kolaboratiboek ikasketan duten funtsezko rola,
- ikasleek prozesuaren diseinuan parte hartzeko aukera dute,
- heziketa garatzeko espazio anitz dago (gela, kalea, auzoa, lokalak eta beste hezkuntza eta gizarte eragile batzuen azpiegiturak...),
- gizarte mugimenduekin harremanak sortzeko prozesu pedagogiko gisa, beste hezkuntza eta gizarte eragile batzuekin lan egitea, Unibertsitatearen eta gizartearen artean lokarriak sortuz. Harremanak horizontala izan behar du,
- parte hartzeko metodologia berritzaile eta sortzaileak erabiltzea -elkarrizketan eta lankidetzan oinarrituta,
- gizartea eraldatu nahi duten ekintza politiko kolektiboak egiteko gai izaten lagunduko dieten praktika eta esperientzia alternatiboak garatzea.

1.2. Unibertsitatean subjektu kritiko gisa aritzeko jokalekua sortu (ikasleen antolakuntzarako jarduerak egin...).

1.3. Ikasleekin hitz egiteko, horiei entzuteko eta komunikazio zuzena sortzeko espazioak eta baliabideak ezarri (gatazkak kudeatzeko eta eraldatzeko lantaldeak; galdetegiak eta elkarrizketak egin; ikerketak eta txostenak egin...).

Bide estrategikoa



1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

Topaketa, komunikazio eta ikasketa kolektiboko espazio bat sortu.



Zertan datza?

UPV/EHUen espazio fisiko eta birtual bat prestatuko litzateke eta, horretan, harremanean eta koordinazioan jarriko lirateke pertsonak eta taldeak, baita izaera kritikoa duten esperientziak eta ekimenak ere. Horrelako espazio bat funtsezkoa da, pertsonak topatzea eta pentsamenduak eta praktikak partekatzea ahalbidetzen duelako. Izan ere, praktika horiek bat datoz bizitzaren iraunkortasunaren aldeko Unibertsitatearen zentzuarekin. Aldi berean, espazio horrek Unibertsitateko sektore handi baten eskaerei erantzungo die. Izan ere, sektore horrentzat beren ekimenak harremanik gabeko irla kritikoak dira eta, hortaz, komunikatzeko, aliantzak sortzeko eta elkarrekin ikasteko aukerak eskatzen du. Gainera, espazio birtualari esker, eragileak harremanean jartzeko eta esperientziak partekatzeko lanari eta kontaktu eta topaketa lanari jarraipena eman diezaiokegu. Espazio birtuala, bada, eskura dagoen baliabide iraunkor bat da eta UPV/EHUren testuinguruaren markoa gainditzen du.

Nortzuk dira arduradunak?

Hezkuntza komunitate osoa: irakasleak, Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (AZL), ikasleak
Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordetza
Pertsonaleko Gerenteordetza
Campus birtuala



Zer beste eragilerekin?

Beste hezkuntza eragile batzuk
Gizarte kolektiboak

Nola sustatu?

2.1. Langileentzat espazio hori sortu, ekintza eta ekimen desberdinak dinamiza ditzaten.

2.2. Praktika onak biltzen dituen datu basea sortu. Unibertsitatearen eremuan hezkuntza komunitateko edozein eragilek (ikerketa taldeek, ikasleek, AZLk, eta abarrek) egindako esperientzia kritikoak biltzeko, aldizkako diagnostikoak egin. Dauden esperientzia ezagutzera eman eta aintzat hartu, horien inguruan hausnartuz ekarpenak eta mugak aztertzeko.

2.3. Kideko eragileak eta taldeak identifikatu, horiekin aliantzak/sareak sortzeko. Aliantzek sortutako baliabideak eta tresnak aprobetxatzeko eta eta aldaketa lortzeko lanean bat egiteko balio izango dute.

2.4. Beste hezkuntza eta gizarte eragile batzuekin ezagutza kritikoa sortzeko balio duten espazioak eta jarduerak sustatu (jardunaldiak, mintegiak...).

2.5. Ahaleginak eta interesak bat egiten lagunduko duen hizkera komun bat sortu.

2.6. Bizitzaren iraunkortasunaren aldeko Unibertsitatearen zentzuan sakontzeko, baliabide eta material berriak diseinatu.

2.7. IEPko (Ikerketa-Ekintza-Partizipatiboa) gela bat sortu. Horretan gizarte mugimenduek landu nahi dituzten gai eta interesak hurbiltzeko aukera izango dute. Mugimendu horiek Unibertsitatearen ikerketarako indarra baliatzera animatu eta Unibertsitateari komunitatearen/gizartearen benetako eskaerei erantzutea eskatu. Azken finean, Unibertsitateak eta Gizarteak elkarrekin lan egitea lortu nahi dugu, ezagutza eta ekintza koordinatua sortzeko.

2.8. Unibertsitate eta fakultate desberdinen artean elkarlaneko ekimen berritzaileak sustatu eta Unibertsitateko araudian sartu, horien interesa bermatzeko.

Bide estrategikoa



1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza heziketa prozesuen bitartez gizarteratu.



Zertan datza?

Heziketa prozesu desberdinak erabiliz, Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza proposamenaren kontzeptua eta ezaugarriak Unibertsitateko komunitatean hedatzea. Gure ustez, heziketa tresna egokia da unibertsitate esparruan hezkuntza mota horren zentzua eta apustua txertatzeko. Hala, dagoeneko, ikasleei zuzendutako proposamen pedagogikoa programatu denez (1.1 bide estrategikoa), honako hau irakasleei eta AZLei zuzenduta egongo litzateke. Gainera, kolektibo biek akreditazioa izango dute.

Nortzuk dira arduradunak?

Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua (SAE/HELAZ)
Zentroetako arduradunak
Pertsonaleko Gerenteordetza

Zer beste eragilerekin?

Beste hezkuntza eragile batzuk
Gizarte kolektiboak
Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzako profesionalen laguntza eta orientazio pedagogikoa



Nola sustatu?

3.1. Irakasleak Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren ikuspegira hurbilduko dituen sentsibilizazio plan bat garatu. Izan ere, Gizarte Eraldatzeko Hezkuntza ezinbesteko estrategia bat da bizitzaren iraunkortasunarekin konprometitutako Unibertsitate bat lortzeko.

3.2. SAE/HELAZ zerbitzuak antolatutako kurtso bat garatu, honako helburu hauekin:

- Garapenaren problematiken ezaugarriak eta Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren proposamena ulertzeko behar den testuingurua ezagutu.
- Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzak Unibertsitatean duen zentzua eta betekizuna ulertuz, ezagutzaren gaiari hurbildu.
- Nagusi diren ikuspegi epistemologikoen aurrean, alternatiboak diren joera horietan sakondu.
- Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzarekin bat datozen proposamen metodologikoa eta gako pedagogikoak ulertu.
- Elkarrekin modu ardurakidean lan egiteko aukera eskaintzen diguten esperientziak, tresnak eta baliabideak (bai unibertsitate eremuan bai gizarte zibilean) hobeto ezagutu.

Bide estrategikoa



1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

Gizartearen arazoaren inguruan hausnartzen eta proposamen alternatiboak sortzen dituen ikerketa sustatu.



Zertan datza?

Gizartean kezka sortzen duten arazoak lantzen dituzten eta eraldatzeko ahalmena duten ikerketekin konprometitzea eta horiek babestea. Izan ere, Unibertsitate publikoak funtsezko rola du gizartearentzat garrantzitsua den ezagutza sortzen laguntzeari dagokionez.

Hala, ikerketa mota horrek honako ezaugarri hauek ditu: partizipatiboa; ez sexista; ez etnozentrikoa; diziplinartekoa; ezagutza modu desberdinei irekia; ingurumen eta generoko inpaktuez arduratua; subjektu sozialek ikerlari moduan parte hartzen dute eta ez ikergai moduan; interes taldeei emaitzak itzultzea kontuan hartzen du; eta sortutako ezagutza partekatzen da eta irekia da.

Izan daitezkeen ikerketa ildoak:

- Nola egiten die aurre gizarte zibil antolatuek problematika desberdinei eta nola proposatzen ditu eraldaketarako bideak.
- Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzarena arabera inplementatutako hezkuntza prozesu propioak dokumentatzen dituen ikerketa.

Nortzuk dira arduradunak?

Irakasle eta ikertzaileak

GrAL(Gradu Amaierako Lana)/MAL-en (Master Amaierako Lana) arduradunak diren irakasleak

Ikerketaren arloko errektoreordetza

Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordetza



Zer beste eragilerekin?

Beste hezkuntza eragile batzuk
Gizarte kolektiboak

Nola sustatu?


- 4.1. Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren esanahiaren eta aukeren inguruan (zerk merezi du Unibertsitatean irakastea, nola eta norekin egin...) hausnarketa sistematikoko prozesu bat bultzatu. Horretan hainbat kolektibok hartuko dute parte (irakasleek, ikasleek, AZLek, gizarte eragileek...).
- 4.2. Ikasleek Unibertsitateko irakasleen ikerketa taldeetan parte hartzera bultzatu.
- 4.3. Gradu Amaierako Lanetan eta/edo Master Amaierako Lanetan Ikerketa-Ekintza-Partizipatiboa sustatu.
- 4.4. Agentzia ebaluatzaileek ezartzen dituzten kalitate irizpideetan, gizartearen interesei eta arazoei erantzuten dieten ikerketen balio akademikoa aintzat hartzeko intzidentzia lana garatu; bereziki, Ikerketaren arloko errektoreordetzan.
- 4.5. Gaur arte, Akademian aintzat hartu ez diren ikerketa metodologia horien balioa eta interesa Unibertsitate komunitatean zabaldu.
- 4.6. Unibertsitatearekin lan egiteak duen interesa gizarte erakundeetan zabaldu eta topaketa hori gauzatzeko komunikazio bide eraginkorrak eta irekiak ezarri.
- 4.7. Gizarte kolektiboek bideratutako ikerketa ekimenak partekatu, irakasleek eta ikasleek horietan parte har dezaten.

Bide estrategikoa



1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

Ingurunean eta parte hartzen duten subjektuekin testuinguruan kokatutako irakaskuntza bat sustatu.



Zertan datza?

Jakintza praktika sozialetan eta inguruko testuinguruan errotzea. Horrela, ikasleak estimulatu nahi ditugu klasean ikasitakoak zentzua duela ikus dezaten.

Gure ustez, ikasleen inplikazioa sustatzeko (hartzaileak barik, subjektu aktiboak), irakaskuntza euren errealitatean oinarritu behar da. Horrek curriculum a euren beharretara moldatzea eskatzen du.

Bestalde, zeharkakotasuna irakaskuntzan sartzea -generoa, kulturartekotasuna, giza eskubideak, jasangarritasuna...- ikuspegi kritikoa bermatzeko estrategia bat da, bai diziplinen edukiei bai irakaskuntza metodologiei dagokienez.

Nortzuk dira arduradunak?

Irakasleak
Zentroetako eta Fakultateetako arduradunak

Zer beste eragilerekin?

Beste hezkuntza eragile batzuk
Gizarte kolektiboak



Nola sustatu?

- 5.1. Zentroetan eta Fakultateetan, modu instituzionalizatu batean, irakasleen praktikaren eta beren hezitzaile rola sendotzeko beharrezkoak diren aliantzen inguruan hausnarketa ariketa bat inplementatu.
- 5.2. Irakasle eta ikasleen artean harreman pedagogiko horizontal bat sustatu. Harreman horrek ikasleen iritzia hartu beharko du kontuan, gai honen inguruan: zerk merezi du irakastea/ikastea? Hori Unibertsitatean egiten ari denarekin alderatuko da eta aldaketak/hobekuntzak proposatzea ahalbidetuko du.
- 5.3. Irakaskuntzaren kalitatea baloratzeko galdetegietan item berriak sartu. Horietan hau aztertuko da: zer neurritan erantzuten dio irakatsitakoak ikasleen testuinguruari eta esperientziei?
- 5.4. Ikasleek Kalitate batzordean parte har dezaten sustatu eta beren iritzia aintzat hartu. Irakasleek eta ikasleek elkar aintzatestea sustatu.
- 5.5. Ikasketa plana parte hartzearen bidez egitea sustatu eta horretarako baliabideak jarri.
- 5.6. Irakasleei heziketa eta laguntza eskaini, irakaskuntzan zeharkakotasuna txertatzeko.
- 5.7. UPV/EHUko zentroetan emandako irakaskuntza mota analizatzen eta hori hobetzeko aukerak non dauden aztertzen duen ikerketa bat egin. Ikerketa horren emaitza ezagutzera emateko eta hausnarketa eta azterketa sustatzeko jarduera bat garatu.

Bide estrategikoa



1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

Unibertsitate-Gizarte harremana sakondu.



Zertan datza?

Unibertsitatea gizarretik banatutako -edo gizartearen gainetik kokatutako-instituzio elitista modura ikusten duen ikuspegi tradizionalaren aurrean, Unibertsitatea komunitatetik gertu dagoen eragile sozial bizi gisa ikusten duen ikuspegia hedatzea.

Planteamendu horrek, gutxienez, hiru orientazio hauek ditu:

- Jakintza hegemonikoa eta Unibertsitateak sustatzen duen ezagutza hiper espezializatua zalantzan jartzea eta eragile sozialekin eta GGKEekin egiten den lana eredu estraktibista baten arabera ulertzen duen ikuspegia gainditzea.
- Gizarte zibilaren parte hartzea ahalbidetzea, elkarrekin, bizitzaren iraunkortasunaren aldeko Unibertsitatea sortzeko. Munduari lotutako Unibertsitate horrek espazioak eman beharko dizkie gizarte erakunde eta kolektiboak diziplinarteko eztabaida akademiko/herritarrak saiatzeko.
- Akademiatik kanpo sortutako ezagutzak Unibertsitateko ezagutza ekoizpenean txertatzea. Horrela, sortutako ezagutza horrek eraldatzeko ahalmen handiagoa izango du.

Nortzuk dira arduradunak?

Gobernu Batzordea

Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordetza



Zer beste eragilerekin?

Nola sustatu?

Beste hezkuntza eragile batzuk
Gizarte kolektiboak

6.1. Unibertsitatea gizarte kolektiboaren artean ezagutzera eman, bere funtzionamendua eta dinamikak azalduz. Horrela, bien arteko hurbilketa eta elkarlana ahalbidetuko da, bai erantzukizun sozialari lotutako ekimenetan baita irakaskuntza eta ikerketa lanetan ere.

6.2. Eragile sozialak Unibertsitatean dagoen potentzial osoa aprobetxatzera animatu.

6.3. *Campus Bizia Lab*-ek gizarte zibil antolatuko elkarten lankidetzara eskaerei erantzuna ematea eta horiek bideratzea ahalbidetu.

6.4. Unibertsitatearen eta Gizartearen artean jakintzak trukatzeko espazioak sustatu.

6.5. Ildo horretatik Gradu Amaierako Lanak eta Master Amaierako Lanak bultzatu.

6.6. Honako helburu hauek dituzten Graduondoko ikerketak sustatu: Modernitatean eraikitako garapenaren inguruko pentsamenduan nagusi izan diren ikuspegiak aztertzea eta irizpide etikoetan eta gizartearen hobetzean oinarritzen den garapen profesionala lortzeko baloreak txertatzea.

6.7. Gizarte mugimenduen, hezkuntzaren eta Unibertsitate konprometitu baten arteko harremanaren inguruan eztabaida ahalbidetzen duten espazioak zabaldu.

Bide estrategikoa



1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

Bizitzaren iraunkortasunaren eta zaintzaren kultura zabaldu.



Zertan datza?

Bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegia nagusi den Unibertsitate kultura aldatzeko estrategia gisa hartzea. Horrek eragina izan beharko du arauetan eta politika instituzionalean; egituretan; eta Unibertsitateko jarduera osoan. Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren agenda bizitzaren iraunkortasunaren helburuekin bat datorrela kontuan izanda, helburua lan hori Unibertsitateko praktikan aintzat hartzea eta sustatzea da.

Nortzuk dira arduradunak?

Gobernu Batzordea
Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetza
Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordetza
Pertsonaleko Gerenteordetza
Unibertsitateko eragile guztien inplikazioa

Zer beste eragilerekin?

Beste hezkuntza eragile batzuk
Gizarte kolektiboak



Nola sustatu?

7.1. Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzarekin eta bizitzaren iraunkortasunarekin koherentea den Unibertsitate bat garatzea oztopatzen duen botere egiturak eta erabakiak hartzeko egiturak identifikatzeko mapatze lan bat egin.

7.2. Besteak eta bere burua zaintzen dituen Unibertsitate bat garatzeko beharrezkoak diren zaintza lanak aztertzen dituen ikerketa bat egin (ingurumenekoak, espazioak, lan ereduak, harremanak, parte hartze ereduak, pertsonen ekarpenak, etab.).

7.3. Hezkuntza prozesuan ikasleentzako tutoretza eta laguntza esperientziak martxan jarri. Gero horiek aztertu eta ebaluatuko dira, prozesu horretatik ikasteko.

7.4. Mundua ulertzeko eta eraldatzeko ikuspegiak (feminismoa, kulturartekotasuna, giza eskubideak, etab...) eskaintzen dituen Unibertsitate publiko eta errotik demokratiko baten ekarpenak eta ondorioak unibertsitate komunitatean eztabaidatu.



Bibliografía


Celorio Díaz, Gema (2017): *Educación crítica y transformadora. Marco teórico-pedagógico para integrar la soberanía alimentaria con enfoque de género en los centros de Secundaria*. Bilbo, Hegoa eta VSF Justicia Alimentaria Global, 2017.
<<http://publ.hegoa.efaber.net/es/publications/373>>.

Rauber, Isabel (2014): "Descolonización, liberación y educación para el cambio civilizatorio. Claves sociales, políticas, económicas y culturales desde Latinoamérica. Pedagogías de esperanza" in: *Cambiar la educación para cambiar el mundo... ¡Por una acción educativa emancipadora! Actas del IV Congreso de Educación para el Desarrollo*. Bilbo: Hegoa.
<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/330/Actas_IV_Congreso_ED.pdf?1429006843>.

Rigal, Luis (2011): "Lo implícito y lo explícito en los componentes pedagógicos de las teorías críticas en educación" in: Hillert, Flora M.; Graziano, Nora; Ameijeiras, María José: *La mirada pedagógica para el siglo XXI. Teorías, temas y prácticas en cuestión. Reflexiones de un encuentro*. Buenos Aires, Editorial de la Facultad de Filosofía y Letras Universidad de Buenos Aires. 40-50. or.
<<http://biblioteca.clacso.edu.ar/clacso/coediciones/20130823043844/miradapedagogica.pdf>>.

Unceta, Koldo (2014): "La Universidad como ámbito para la promoción del Desarrollo Humano", in: Boni Aristizábal, Alejandra, Carola Calabuig Tormo y Agustí Pérez Foguet (koord.): *Universidad y Cooperación al Desarrollo. Contribuciones de las Universidades al Desarrollo Humano*. Centro de Cooperación al Desarrollo de la Universitat Politècnica de València.
<http://biblioteca2012.hegoa.efaber.net/system/ebooks/19967/original/Universidad_y_Cooperacion_al_Desarrollo.pdf?1433167691>.

UNESCO (2015): *Replantear la educación ¿Hacia un bien común mundial?* Paris, UNESCO.
<<http://unesdoc.unesco.org/images/0023/002326/232697s.pdf>>.



1. eranskina. Partaideak

- Iratxe AMIANO BONATXEA (UPV/EHUko irakaslea eta Hegoako kidea)
- Margaret Louise BULLEN (UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Practicum Dekanordea)
- Maitane CABEZA BASTIAS (Euskadiko GGKEen Koordinakundeko teknikaria)
- Aintzane CABO BILBAO (UPV/EHUko irakaslea)
- Vanesa CALERO BLANCO (Sorkin, Jakintzen iraultegiko aktibista)
- Ana CANO RAMÍREZ (Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitateko irakaslea)
- Gema CELORIO DÍAZ (Hegoako hezkuntza taldeko teknikaria)
- Juanjo CELORIO DÍAZ (UPV/EHUko irakasle erretiratu eta Hegoako hezkuntza taldeko kidea)
- Amaia DEL RÍO MARTÍNEZ (Hegoako hezkuntza taldeko teknikaria)
- Ángel ELÍAS ORTEGA (UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko Dekanoa)
- Patricia GÓMEZ RUÍZ (VSF-Justicia Alimentaria Global erakundeko kidea)
- Suyapa MARTÍNEZ SCOTT (Valladolideko Unibertsitateko irakaslea)
- Estibaliz MARTÍNEZ VILLABEITIA (UPV/EHUko Garapenerako Lankidetz Bulegoko teknikaria)
- Joseba SAINZ DE MURIETA MANGADO (UPV/EHUko irakaslea eta Ingeniería Sin Fronteras/ Mugarik Gabeko Ingeniaritza erakundeko kidea)
- Teresa SANCHO ORTEGA (Sorkin, Jakintzen iraultegiko aktibista)
- Unai VILLENA CAMARERO (UPV/EHUko Hegoa Institutuko Garapenari buruzko Ikasketa programako doktoregaia eta Sorkin, Jakintzen iraultegiko kidea)